# 7 EUSKARAZ HITZ EGIN, MESEDEZ!

Gure seme-alabek euskara erabil dezaten nahi dugu, baina sarritan ez gara konturatzen gu ere beraientzat eredu garela.
Horregatik, ondorengoak kontuan izan:

- Euskara hitz egiteko zortea baduzu, erabil ezazu ahal duzun guztietan eta saia zaitez zure maila hobetzen.
- Euskara ez badakizu, saia zaitez ikasten. Ez dakizu zenbateraino goza dezakezun.

Queremos que nuestros/as hijos/as usen el euskera, pero muchas veces no somos conscientes de que representamos un modelo de referencia para ellos/as. Por eso:

- Si tienes la suerte de saber euskera, utilízalo siempre que puedas e intenta mejorar tu nivel.
- Si no sabes euskera, intenta aprenderlo. No te imaginas las satisfacciones que te va a reportar.



# 8 ASKO IKASI!

Kontuan izan behar dugu hizkuntza baten ikasketa ez dela inoiz bukatzen eta jakite maila erabileraren bidez hobetu egiten dela. Zure seme-alaben eta zure lagun euskaldunekiko begirunea erakutsi eta ikasi eta hobetu zure euskara maila. Beraientzat garrantzitsua eta baliotsua dena zuretzat ere badelako. Zuri laguntzeko prest egongo dira. Hanka sartzen baduzu ez kezkatu, hizkuntza bat akatsak eginez ikasten baita. Ez al zara konturatu nola ikasten duten haurrek?

Tenemos que tener en cuenta que una lengua nunca se acaba de aprender, y que su conocimiento mejora con su uso. Aprende y mejora tu nivel de euskera, por consideración a tus hijos/as y amigos/as euskaldunes, porque lo es importante para ellos/as también es importante para ti. Van a estar encantados/as de ayudarte. No te preocupes por tus posibles meteduras de pata, un idioma se aprende equivocándose. ¿No te has fijado cómo aprenden los niños/as?



## MATRIKULA NON EGIN

## Para hacer la matrícula

Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzua: 943 865025.

Izena emateko epea: urriaren 6a
Taldea sortzeko gutxienez 10 lagun beharko dira.

Plazo de inscripción: 6 de octubre
Será necesario un mínimo de 10 personas para formar un grupo.

**Zumaiako Udala**

# ZUMAIAKO GURASOENTZAKO EUSKARA ESKOLAK

## Clases de euskera para padres y madres de Zumaia

Udalak Zumaiako neska-mutilen guraso guztiei bereziki zuzendutako euskara ikastaroak antolatu ditu, umeen eskola orduetan, AEK-rekin elkarlanean.

El Ayuntamiento de Zumaia ha organizado cursos de euskera especialmente dirigidos a todos los padres y madres de niños y niñas de Zumaia, en horario escolar y en colaboración con AEK.





## 1 GOZATU ZUMAIA!

Zumaian bizitzea pribilegio bat da eta Zumaia bizitzea are gehiago. Euskara erabiliz sentimendu hori sakonago bizi dugu, hizkuntza gure herriaren msemoria eta kontzientzia kolektiboaren muinean dagoelako.

Vivir en Zumaia es un privilegio, y vivir Zumaia lo es más. El uso del euskera nos hace sentir más profundamente esa vivencia, porque esa lengua se encuentra en el corazón de la conciencia y memoria colectiva de nuestra comunidad.



## 2 ETORRI HONA!

Gure seme-alabei gugana etortzeko esaten diegun bezalaxe. Gurasook ere gure seme-alabengana joan behar dugu eta beraien ikasketa prozesuarekin bat egin. Gure eginkizuna betez, baina euren tokian jarriz eta, ahal dugun neurrian, "beraien hizkuntzan hitz eginez". Gure laguntza oso garrantzitsua da beraientzat.

Lo mismo que les decimos a nuestros hijos/as para que vengan a nuestro lado. Los padres y madres debemos acercarnos a ellos/as y recorrer juntos su proceso de aprendizaje. Desempeñando nuestro rol, pero poniéndonos a su altura, y en la medida de nuestras posibilidades "hablando su lengua". Nuestro apoyo es fundamental para ellos/as.

## 3 ONDO PORTATU!

Gure seme-alabek gurekin "jator" jokatzea nahi badugu, guk ere horrela jokatu behar dugu beraiekin. Axolagabekerian erori gabe eta aukera guztiak eskainiz, euskara ikasi eta erabil dezaten, bai eskolan, baita eskolatik kanpo ere.

Si queremos que nuestros/as hijos/as se porten "bien", nosotros/as debemos portarnos bien con ellos/as. No cayendo en la indiferencia y ofreciéndoles todas las oportunidades, tanto desde el punto de vista escolar como extraescolar, para que adquieran y usen el euskera.

## 4 ONDO PASA!

Oso garrantzitsua da gure seme-alabek euskararen ikasketa eta erabilera ondo pasatzearekin eta gustura egotearekin lotzea, alderdi formatiboak eta afektiboak elkartzea. Horregatik da hain garrantzitsua euskara erabiltzea familian, eskolako jardueretan nahiz aisialdiko ekintzetan (kirola, musika, dantza, aisialdia, eta abar).



Para nuestros/as hijos/as, es fundamental que el aprendizaje y uso del euskera se encuentre unido a momentos y vivencias de disfrute y satisfacción, compaginando su componente formativo y afectivo. De ahí la importancia de contar con la presencia del euskera tanto en el ámbito familiar, como en actividades escolares y de ocio (deporte, música, danza, tiempo libre, etc.)



## 5 KONTUZ IBILI!

Gure seme-alabei sarritan "kontuz ibili" esaten diegu, arazorik gabe hazi eta hezi daitezen nahi dugulako. Heldutasunera heltzen denean, haurrak nahi duen hizkuntzan hitz egiteko aukera eta gaitasuna izan dezan kontu handia izan behar dugu, eta euskara ikasi eta erabiltzeko berez dituzten gaitasun guztiak ahalik eta modurik egokienean garatzeko dauden aukerak ondo aprobetxatu behar ditugu.

Muchas veces les decimos a nuestros/as hijos/as que anden con cuidado, porque queremos que crezcan y maduren sin problemas. Pero para que un/a niño/a al llegar a la madurez tenga la posibilidad y capacidad de elegir en qué lengua quiere expresarse y vivir, debemos tener cuidado a la hora de propiciar las condiciones que mejor potencien el desarrollo de sus capacidades innatas para aprender y usar el euskera.

## 6 AURRERA BEGIRATU!

Gurasook gure seme-alaben etorkizuna ahalik eta onena izan dadin saiatzen gara, heziketa eta prestaketa egokia izan eta aurrera egin dezaten nahi dugu. Eta euskararen jakite eta erabilera maila egokia izatea, elementu giltzarria izan daiteke etorkizun hobea izan dezaten.

Los padres y madres intentamos mirar por el futuro de de nuestros/as hijos/as, queremos que se formen y se preparen, que tengan un porvenir. Y un adecuado conocimiento y uso del euskera puede contribuir de forma decisiva a la construcción de un futuro mejor para ellos/as.

